

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Getxoko Kultur Etxea Tokiko Erakunde Autonomoa**

Getxoko udalerrian 2021. urtean interes kultureko jai eta ospakizunengatik jarduera kultural eta ludikoak antolatzeako diru-laguntzak emateko bigarren deialdia.

SARRERA

Herritarren parte-hartzea alderdi guztietan bultzatu behar da; baita ere, kultur arloko ospakizun publikoak antolatzearekin lotutakoetan, gure udalerriko bizilagunek, oro har, parte hartzerik baldin badute. Era horretan, udal jai ezberdinak antolatzea bultzatu beharreko gertaera-mota horien barruan sartzen da.

Hala ere, argi dago egungo osasun krisiak eragotzi egiten duela udalerriko jaiak ohiko moduan ospatzea, izan ere, udalerriko auzo guztiak sozializatzeko eta alaitzeko helburuek, besteak beste, talka egiten dute agintari eskudunek ezarritako araudi higieniko-sanitarioarekin, eta arrisku larria izan daitezke Getxoko herritarren osasun eta segurtasunaren kaltean.

Aitzitik, Getxoko Kultur Etxeak, udalerriko jai batzordeei entzunez interesa dutela getxotarren aldartea hobetzeko eta oro har gizarte-egitura berrakibatzen laguntzeko, ezinbesteko jotzen du herritarren gizarte-kohesioa eta ongizatea hobetuko dituzten jarduera ludiko eta aisialdikoak antolatzea sustatzea, betiere erabateko berme higieniko-sanitarioekin eta segurtasun eta osasun arloan indarrean dagoen araudia zorrotzasunez beteta.

2021eko ekainaren 4ko datarekin, lehen deialdia egin zen. Epez kanpoko proposamenak jaso zirenez data jakin batzuen ospakizunak antolatzeako, eta horien interesa kontuan izanik, egoki ikusi da bigarren deialdia egitea.

Hori dela-eta, deialdi hau argitaratu da Getxoko udalerrian 2020. urtean interes kultureko jai eta ospakizunengatik jarduera kultural eta ludikoak erabateko berme higieniko-sanitarioekin antolatzeako diru-laguntzak emateko, eta hori ondorengo araudiaren arabera: Diru-laguntzen inguruko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailearen 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta 2004ko abenduaren 30ean egindako Osoko Bilkuran onartutako eta 2005eko urtarrilaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Udal Ordenantza.

ARAUDIA**Lehena. — Helburua**

Deialdiaren helburua da udal jaiak direla eta jarduera kultural eta ludikoen ezohiko antolaketa, erabateko berme higieniko-sanitarioekin, eta eskatzen duen pertsona edo erakundeari laguntza ekonomikoa ematea, Kultur Etxea jarduera horren antolatzaile moduan hartu gabe. Modu horretan, aurrean azaldutakoaren ondorioz, Kultur Etxeak ez du bere gain hartuko diru-laguntza jasotako jarduera ohiko edo ezohiko moduan garatuta sor daitekeen Erantzukizun Zibileko edozein ondare-errekamaziorik.

Bigarrena. — Diru-laguntzaren modalitatea

Diru-laguntza arruntak edo urtekoak, udal jaiak direla eta jarduera kultural eta ludikoak garatzetik eratorritako gastuak ordaintzeko izango direnak; diru-laguntza horiek lehia bidez emango dira.

Hirugarrena. — Pertsona edo erakunde hartzailleak

Diru-laguntza eskatu ahal izango dute Getxon helbide soziala duten pertsona juridikoek (irabazi asmorik gabekoek), udal jaiak direla eta jarduera kultural eta ludikoak



antolatzen proposamenak egiten dituztenek; eta Getxoko Elkartearen Udal Erregistroan inskribatuta egon beharko dira.

Beraz, ezin izango dira onuradunak izan, Getxoko Elkartearen Udal Erregistroan inskribatuta ez dauden pertsona juridikoak ezta irabazi asmorik gabekoak, edo deialdi horren aurretik 2021. urtean aurkeztu izan direnak.

Laugarrena. — Diru-laguntzaren barruko jarduerak

Zehazki, deialdi honetan ondorengo jaiak sartzen dira:

- Nazioarteko Paella Txapelketa (uztailak, 25).
- Iñaki Deunaren jaiak (uztailak, 31).

Diru lagunduko diren jarduerak hauek izan ahalko dira bakarrik, eta goian azaldutako daten inguruan gertatuak izan behar dute derrigorrez:

- a) Jaiak edo interes kulturalako ekitaldiak sareetan sozializatzeko bideo orogarribat egitea eta zabaltzea.
- b) Ikuskizunak streaming bidez kontratatzea eta emititzea.
- c) Online lehiaketak antolatzea. Partaideek leku desberdinetatik parte hartu beharko dute.
- d) Jaiak gogorarazteko merchandising produktuen diseinua eta produkzioa.

Inola ere ez dira onartuko COVID-19 gaitzaren zabalkundearen aurka aplikatu daitezkeen araudiak baimentzen ez dituen jarduerak.

Diru-laguntza honen xedetik erabat kanpo geratzen da bide publikoaren okupazioa eskatzen duen zeinahi jarduerara, edo oinezkoen zein ibilgailuen trafikoaren hazkunderik eragin dezakeenik. Kanpo geratzen dira ere publikoa presente duten jarduerak edo emisioak.

Artikulu honetan jasotako ezaugarriak edo baldintzak betetzen ez dituen zeinahi jarduerara ez da diruz lagundua izango.

Bosgarrena. — Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- a) Pertsona fisikoa bada, eskatzen duen pertsonaren NANaren kopia.
- b) Pertsona juridikoa bada, eskatzen duen pertsonaren NANaren kopia nahiz erakundearen IFKren kopia.
- c) Erakundearen Estatutuen fotokopia.
- d) Eskaera-inprimakia beteta (I. eranskina).
- e) 3.000 eurotik beherako diru-laguntzak jasotzeko, erakundeko ordezkariaren edo eskatzen duen pertsonaren aitortpena, Bizkaiko Foru Ogasunarekiko edo Foru edo Estatuko beste edozein Ogasun Publikoarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzeko (II. eranskina). Bestalde, 3.000 eurotik gorako diru-laguntzetarako, egoera hori egiaztatzen duten agiriak. Ofizioz, Gizarte Segurantzari eskatuko zaio betebeharrak egunean dituela egiaztatzea, interesdunak espresuki kontrakoa adierazten ez badu eta, kasu horretan, ziurtagiria aurkezten badu.
- f) Jaietan zehar egin beharreko jardueraren edo jardueren gaineko programa zehatua (III. eranskina).
- g) Jarduera egiteko aurreikusitako gastuen eta sarreraren gaineko aurrekontu zehatua. Aurrekontu horretan zehaztuko da, halaber, jarduera horiek egiteko laguntza zein erakunde publiko edo pribaturi eskatu zaion eta nork eman duten, emandako zenbatekoarekin batera.
- h) Diru-laguntzaren eskaera aurkeztutako urtearen aurreko urte dirulaguntza eskatu den ekintzaren sarreraren eta gastuen gaineko balantzea.

Dokumentuak aldatu ez diren kasuan, eskaera egin aurreko urtean Getxoko Udala edo Kultur Etxearen eskutik antzeko diru-laguntza jaso duten eskatzaileek ez dute berriro dokumentazio hori aurkeztu beharrik izango, baina eskaeran egoera horren berri eman beharko dute.

**Seigarrena. — Eskaerak aurkezteko lekua eta epea**

Eskaerak ondorengo edozein udal-bulegotan aurkeztuko dira:

Telematikoki, Getxoko Administrazio Elektronikoko Bulegoan, www.getxo.eus

- Getxoko Kultur Etxeko Bulegoa Muxikebarri-Basagoiti Etorbidea, 77 (Algorta).
- Herritarren Arretarako Bulegoa-Areeta/Romo. Mesedeetako kalea, 13 (Udal Elkartegia).
- Herritarren Arretarako Bulegoa-Algorta. Torrene kalea, 3.
- Eskerak aurkeztu ahal izango dira, baita ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako edozein lekutan.

Eskerak aurkezteko epea deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean irekiko da eta 10 egun natural geroago itxiko da. Eskera guztiak epe horren barruan aurkeztu beharko dira.

Zazpigarrena. — Baloratzeko irizpideak

Eskerak ebazteko, ondorengo balorazio-irizpideak hartuko dira kontuan:

- Pertsona edo erakunde eskatzaileak gertaera edo jai hori antolatzen duen esperientzia (50 puntu).
 - 2 urtetik behera: 10 puntu.
 - 2tik 5 urtera: 25 puntu.
 - 5 urtetik gora: 50 puntu.
- Pertsona edo erakunde eskatzaileak antzeko gertaera edo jaiak antolatzen duen esperientzia (15 puntu).
 - 2 urtetik behera: 5 puntu.
 - 2tik 5 urtera: 10 puntu.
 - 5 urtetik gora: 15 puntu.
- Aurkeztutako egitaraua (35 puntu) Egitarauaren bideragarritasuna eta ekintzen aniztasuna baloratuko dira.
 - Jardueak norengana zuzenduta dauden (zenbat eta adin tarte zabalagoa izan orduan eta puntu gehiago): gehienez 15 puntu.
 - Bideragarritasuna (zenbat eta bideragarriagoa izan orduan eta puntu gehiago): gehienez 20 puntu.

Esperientzia Kultur Etxean dauden datuekin baloratuko da. Beste batzuk baloratzea nahi izanez gero, eskaerarekin batera, dagokion informazioa aurkeztuko da.

Zortzigarrena. — Izapidea eta ebazpena

- a) Oinarri espezifiko hauetan jasotako laguntzak emateko organo instruktorea Getxoko Kultur Etxeko unitate administratiboa izango da. Ebazpena emateko eskumena Erakundeko Presidentea izango du, aurreko paragrafoan aipaturiko organo instruktoreak proposatuta.

Elkargokidea den organoak, organo instruktorearen bidez, emateko proposamenaren egingo dio diru-laguntza emango duen organoari; hau da, Presidenteari, Diru-laguntzen inguruko 38/2003 Lege Orokorrean esaten denaren arabera.

Organo Kolegiatuaren kideak Lehendakariaren ekainaren 28ko 233/ 2019 ebazpenaren bidez izendatutakoak izango dira.

- b) Ebazpena gehienez 30 egun naturalen epean emango da, eskaerak aurkezteko epea bukatzen denetik kontatzen hasita. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik ematen ez bada, diru-laguntzaren eskaera ukatutzat hartuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen inguruko 39/2015 Legeari jarraiki.



- c) Diru-laguntza jaso ahal izateko udaleko zerga guztiak ordainduta izan behar dira. Halaber, ezin da bestelako betebeharrak ekonomikorik bete gabe izan. Arduraz hori udalak hartuko du bere gain. Ezin izango da diru-laguntza ordaindu, itzulketa ebazpena dela eta onuraduna zorduna denean.

Bederatzigarrena. — Diru-laguntzaren zenbatekoa

Diru-laguntzen deialdi honetarako gehienez dagoen kreditua 15.618,00 eurokoa izango da, eta era honetan banatuko da:

Diru-laguntzen atalak	Diru-laguntza
Nazioarteko Paella Txapelketa	1.961,00
Iñaki Deunaren jaiak (Algorta auzoa)	7.056,00
GUZTIRA	9.017,00

Zenbateko horiek 003.00/3380-0/481.00.00 partidaren kontura ordainduko dira. Emango den diru-laguntzaren eta diruz lagundutako jarduerak izandako bestelako diru-laguntzen, diru-sarreraren edo baliabideen batuketara osoak ezin du gainditu jardueraren gastuen aurrekontua.

Hamargarrena. — Erakunde onuradunen betebeharrak

Diru-laguntzak jasotako pertsonak edo erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Emandako diru-laguntza garaiz eta forman justifikatu beharra.
- b) Betetzea martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua, COVID-19-ak eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera ezartzen duena, eta osasun publikoaren babeserako agintari eskudunek unean-unean onartzen dituzten neurriak, bereziki COVID-19 gaitzari aurre egiteko kasuan.
- c) Diruz lagundutako proiektu edo programan ez sartzea:
 - a. Oinarrizko eskubideetako edozein urratzea dakarten egintzak, pertsona guztien eskubide eta askatasunak errespetatzeko helburuz, eta zehazki, biktimen eta haien familiakoen mespretxua, umiliazioa edo izena galtzea dakarten ekitaldiak, terrorismoa gogoratzen dutenak edo terroristei omenaldia egiteko edo jendaurreko sariak emateko antolatzen direnak.
 - b. Udaltzat onetsi dituen Udal Planen aurka doazen egintzak: Berdintasun Plana; Gazte Plana; Dogramendetasun Plana eta Inmigrazio Plana, etab.
 - c. Animaliei tratu txarrak ematea dakarten egintzak.
- d) Aurreikusitako proiektua edo programa egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizun guztiak bere gain hartzea.
- e) Diru-laguntza jasotako programa ez aldatzea, Kultur Etxeak alde aurretik adostasuna eman gabe.
- f) Kultur Etxeak egokitzat joz gero, emandako diru-laguntza aplikatzen den egiaztatze eta horren segimendua egiteko jarduerak burutzea.
- g) Publizitatean eta komunikatzeko ekintzetan adieraztea proiektua, egitaraua edota jarduera Getxoko Udalaren eta Getxoko Kultur Etxearen lankidetzarekin egingo dela. Horretarako, egitarauaren kartela Kultur Etxera bidali beharko da imprimatu aurretik.
- h) Proiektuaren, programaren edo jardueraren inguruko publizitatean eta komunikazioan hizkuntza eta irudi sexistak ez erabiltzea.
- i) Erakunde kudeatzaileari dagokiona ordaintzea, eskubideak erakunde horrek kudeatzen dituen kasuan, katalogoko obrak erabiltzearen truke.
- j) Proiektuaren, programaren edo jardueraren inguruko publizitatean eta komunikazioan hizkuntza normalizaziorako irizpideak betetzea.

**Hamaikagarrena. — Diru-laguntza itzultzea**

Jarraian adierazitako kasuak gertatzean, jasotako diru-laguntza Udalaren Diru-kutxara itzuliko da, diru-zaintza ordaintzen denetik berau itzultzeko erabakia hartzen den egunera arte sortutako berandutzazko interesak barne: 38/2003 Legearen 37. Artikulu-koak, azaroaren 17koa eta diru-laguntzei buruzkoa, eta aurreko apartaduan jasotako betebeharrak ez betetzea.

Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, osorik edo zati batean, proportzionaltasunaren edo egitatearen printzipioari jarraituko zaio eta, horretarako, kasu bakoitzaren ezauzgarriak hartu dira kontuan.

Diru-laguntza itzultzeko ebazpena diru-laguntza emateko ebazpena eman zuen organo berak eman beharko du.

Dirua itzultzeko espedienteak 39/2015 Legearen, urriaren 1ekoa eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, IV. Tituluan ezarritako arauak beteko ditu, eta, 15 eguneko epean interesdunari entzunaldi-izapidea emango zaio.

Halaber, ondorengoak kontuan izango dira: uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko III. eta IV. Tituluetan ezarritakoa, diru-laguntzen gaineko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko Erregelemandua onartzen duena, eta Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorreko II. Titulua, azaroren 17koa.

Hamabigarrena. — Zehapenak

Ezarritakoak betetzen ez diren kasuan, honako hauek aplikatuko dira: Diru-laguntzen inguruko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, aipatu Legearen Erregelamendua onartzen duena; eta 2004ko abenduaren 30ean egindako Osoko Bilkuran onartutako eta 2005eko urtarrilaren 24ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako Udal Ordenantza.

Hamahirugarrena. — Diru-laguntza justifikatzea

Diru-laguntza ebatzi eta 30 egutegi-eguneko epean, dagokion justifikazioa aurkeztu beharko da:

- Memoria narratiboa: gutxienez, burututako egitaraua (IV. eranskina).
- Balantze ekonomikoa: batetik, izandako sarrerak, eta, bestetik, izandako gastuak biltzen dituen agiria.
- Zenbateko osoa ekonomikoki justifikatzeko agiriak; hau da,
 - 1) Faktura orijinalak.
 - 2) Fakturen kopia parekatuak (Herritarrak Artatzeko edozein Bulegotan egiten da).
 - 3) Justifikazio-kontua (V. eranskina).
- Diru-laguntza jasotako jarduera edo jaija dela-eta, argitaratutako bideo edo beste-lako elementuen ale bana.

Justifikatzeko aurkeztutako agiri guztiek diru-laguntza emandako ekitaldi ekonomiko data izango dute.

Diru-laguntzaren zuriaketa egiteko betebeharrak betetzen ez den kasuan edo nahikoa ez den kasuetan itzulketa eskatuko da, Diru-laguntzen gaineko 38/2003 Lege Orokorreko 37. artikulua ezartzen dituen baldintzetan.

Hamalagarrena. — Publizitatea

Bai oinarriak, baita ebazpena ere Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira. Halaber, deialdia BDNSen argitaratuko da.

Eranskinak www.getxo.eus webgunean eskuragarri daude.

Getxon, 2021eko irailaren 30ean. — Getxoko Kultur Etxeko Presidentea, Irantzu Uriarte Gómez